



txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria 2006 Abendua • 36. zenbakia



in Yeu! in Neu!



**BEGIRA, BEGIRA ZER NOLAKO NESKA MUTIKO EEEERRAK ETORRI
ZAIZKIGUN HIRU URTEKO GELETARA!!!**



aurkibidea

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	9
KILOMETROAK	15
EUSKARAREN TXOKOA	23
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	24
GU ERE KAZETARI	26
NAHASTE BORRASTE	28



■ Hitzaurrea

Joan zaigu lehen hiruhilabetea eta honekin batera Iritsi da 06-07 ikasturteko TXIN-PART lehen alea eskuartean izateko unea. Ikasturteko lehena bada ere, jada 36. alea dugu hau.

Urtero bezala ilusioz beteta egindakoa, eta lehen hiruhilabetea gai nagusiak aurkezten saiatu gara bertan: hainbat informazio, KMK 06ri agurra, ikasleen lanen adibide gisa aukeratu direnak, Eskuttun elkartearen informazioa... Guztiak oso interesgarriak.

Gure nahia da guztion gustukoa izatea, eta, noski, irakurle berria zaitugun horrentzat ere bai. Bide batez, ongi etorri gure proiektura!


Murgildu zaitezte beste aldi batez gure ale honetan, eta familia osoak une atsegina bat pasa ezazue.

Hautzaro Ikastolako ikasle eta langile guztien izenean,
IGARO ITZAZUE GABON ZORIONTSUAK



Eguberri on eta Urte Berri On!

Hemen heldu gerade
berri on batekin...



Arau Subsidiarioak eta Ikastola

azken aldian, zoritxarrez, behin eta berrin komunikabideetan albiste gara. Oiarzungo arau subsidiarioen onarpena dela eta, Ikastolak handitzeko behar duen lur eremua jokoan baitago.

Esan bezala, komunikabideetatik eta barruko oharren bitartez albiste honen berri izateko aukera izan duzue. Hemen, labur-labur, gai honen kokapena:

Zergatik dira hain garrantzitsuak ordezeko arauak Ikastolarentzat?

Arauetan herriko lurren kalifikazioa egiten da, hau da, lur batean eraikiko den ala ez, eta eraikitzekotan zein mota-tako eraikina eraikiko den. Bestalde, orain onartuko diren arauak 8 urteko iraupena izango dute.

Ikastolak bere inguruko lurak hezkuntzarako gordetzea eskatzen du, hau da, lur horietan hezkuntzaren beharrek zerikusirik duten eraikinak egiteko kalifikatzea. Hau idazten ari garen unean, azaroaren 30ean, onartu nahi diren arauak ez dute eskaera hau jasotzen. Jasotzen dena zera da: lur eremu horretan ez dela eraikiko.

Modu honetara onartuz gero, Ikastolak eraikina egiteko aukera izan dezan, ordezeko arauak berriz aldatu egin behar dira. Baina onartu berri diren arauak epe motzean aldatzeko asmoa badago, ez al da egokiago erabakia orain hartzea? Guztiok dakigu aldaketa hori emateko aukera izan arren denbora luzea eskatzen duen prozesua dela.

Zein espazio behar ditu ikastolak?

Ikastolaren espazio beharrak handiak eta larriak dira. Legez arautua dago, ikastetxe batek gela arabera izan behar dituen metro karratuak. Haurtzaro Ikastolak, lege honen arabera, eta bi urteko gelak kontuak hartu gabe, 1500 metro karratuko eskasia dauka.

Behar hau ez da hipotetikoa, erabat erreala da. Urtetik urtera, gure ikasleek behar honen ondorioak jasaten ari dira, eta bizpahiru urteetan, jasanezinak bihurtuko dira. Epe motzeko aukerak planteatzen ari gara jada, baina oso ezberdina da eraikin berria egiteko aukera izanez gero hartuko ditugun erabakiak, edota eraikin berririk gabe hartu beharko ditugunak.

Estimazio horretan, ez da kontuan hartzen Arauen ondorioz Oiarzungo herriak izango duen hazkunde demografikoa.

Dituen beharrak eta aurreikusten dituen erantzuna emateko behar-beharrezkoa dugu eraikin berria, ezinezkoa baita ditugun eraikinetan zabalkunderik bideratzea. Bestalde, ez da irtenbidea Altxibar, Iturrioz edo Arra-guan gauzatzea.

Udalak hezkuntza beharren azterketa egin behar omen du eta gure eskaeraren erantzuna horren baitan utzi.

Haurtzaro Ikastolak azterketari ez dio beldurrik, aldiz, azterketa hori egiteko asmoa jakin bezain laster, lankidetzarako geure burua eskaini genuen.

Oiarzungo Udalak agian beldur gehiago dio. Martxoaren bukaeran, pleno batean erabaki zuen, hasierako dokumentua onartu baino lehenago egingo zela azterketa hau.

Baina hasierako dokumentua uztailleko plenoan onartu zen, eta azterketa ez da egin.


Orain esaten dute egingo dela, baina oraingoan azterketa egiteko eperik ez da ematen. Jokaera hauek sinesgarritasun gutxi daukate. Bistan gelditzen ari da, azterketa hau erantzuna denboran luzatzeko aitzakia besterik ez dela.

Hasieran, azterketa egin behar dela eta horren baitakoa izango dela Udalaren erantzuna. Eta hurrengoan, berriz, proiektua aurkeztu badugu, bideratuko dutela.

Udala, argudioak ez dituenean, kontraesan nabarmen-tan sartzen da, edo agian guri ezer esan gabe azterketa egin dute, eta badakite gure beharrak benetakoak direla, baina ez dute aitortu nahi.

Azterketarena aitzakia modura erabiltzen badute, proiektua aurkezteko eskatzen digute orain. Hori, gure iritziz, atentzioa desbideratzeko beste maniobra bat besterik ez da. Gogoratu, egiteko eskatzen zaigun proiektua Udalak badaki aspaldi eginga dugula. Ondoko plana, beste bi gehiagorekin eta dokumentu zabal batekin Ikastolak 2006ko urtarrilaren 5ean aurkeztu zuen Udal erregistroan.

Dokumentu hori nahiko zehatza da udalak erabakia hartu ahal izateko. Udalak zer nahi du, Ikastolak proiektu batean 60.000,00 €tik gora gastatzea, gero arauen baitan ezin dela eraiki erantzuteko? Eman dezala hitza Ikastolak eskatzen duen eremuan eraikitzearen soluzioa eta baimena badugula, lurak horretarako gorde ditzala eta proiektua berehala egingo dugu.





1. Hiruhilabeteko irteerak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
H H 1	IRAILAK 28	MENDIBILKO PARKERA	ELKARREKIN DISFRUTATZEA
H H 1	URRIAK 2	MENDIBILKO TXARARA	NATURAZ GOZATZEA ETA EZKURRAK BILTZEA
H H 1	URRIAK 10	BIDEGORRIRA	ELKARREKIN PASEATZEA
H H 1	URRIAK 26	GURUTZERA	GAZTAINAK BILTZEA ETA BASERRIA IKUSTEA
H H 1	URRIAK 30	IBARGAINGO PARKERA	HOSTOAK BILTZEA
H H 1	AZAROAK 14	MENDIBILKO TXARARA	UDAZKENAZ GOZATZEA
H H 2	IRAILAK 14	MENDIBILKO TXARARA	ELKARREKIN JOLASTEA
H H 2	IRAILAK 21	UDALETXERA	ARTE OINEZ ERAKUSKETA IKUSTEA
H H 2	IRAILAK 27	KMK IBILBIDERA	ELKARREKIN IBILALDIA EGITEA
H H 2	URRIAK 20	TXILLIDA LEKURA	BERE ARTELANAK EZAGUTZEA
H H 2	AZAROAK 3	ARTIKUTZARA	UDAZKENAZ GOZATZEA
H H 2	ABENDUAK 5	HERRIAN ZEHA	SAN NIKOLAS EGUNA OSPATZEA
LEHEN HEZKUNTZA			
L H 1. - 2.	IRAILAK 25	ZINEMALDIRA	KULTUR EKINTZA BATEAN PARTE HARTZEA
L H 1.	URRIAK 31	LUBERRIRA	MUNDUKO SORRERA ETA FOSILAK EZAGUTZEA
L H 1.	AZAROAK 21	SARA ETA ZUGARRAMURDIRA	LEHEN GIZAKIEN GAIA LANTZEA
L H 2.	IRAILAK 29	URKABERA	TALDEEN ARTEKO HARREMANA SENDOTZEA
L H 2.	URRIAK 9	HAURTZAINDEGIRA	ZEIN TXIKIAK IZAN GAREN OHARTZEA
L H 2.	AZAROAK 10	HONDARRIBIARA	ERDI AROKO HERRI BAT EZAGUTZEA
L H 3.	IRAILAK 21	KMK IBILALDIA	HERRIA EZAGUTZEA
L H 3.	IRAILAK 22	KARRIKARA	HERRIA EZAGUTZEA
L H 3. - 4.	IRAILAK 25	DONOSTIARA	ZINEMALDIA
L H 3.	IRAILAK 29	ERGOIENA	HERRIA EZAGUTZEA
L H 3. - 4.	URRIAK 2	OIARTZUNA	KMK GARBIKETA
L H 3.	AZAROAK 6	GURUTZERA	HERRIA EZAGUTZEA
L H 3.	AZAROAK 6	IKASTOLARA	EGIPZIAR DANTZAK EZAGUTZEA
L H 4.	IRAILAK 27	KMK IBILALDIA	HERRIA EZAGUTZEA
L H 4.	URRIAK 27	OARSOALDERA	ESKUALDEA EZAGUTZEA
L H 4.	ABENDUAK 19	DONOSTIARA	ZINEMA EUSKARAZ
L H 5-6	IRAILAK 25	DONOSTIARA	ZINEMALDIA
L H 5-6	IRAILAK 29	KMK06 ZIRKUITORA	IBILBIDEA EZAGUTZEA
L H 5	AZAROAK 24	MUSIKA TXOKORA	E. H. MUSIKA TRESNAK EZAGUTZEA
L H 5-6	AZAROAK 29	TOLOSARA	XXIV. TITIRIJIAZ GOZATZEA
L H 5	ABENDUAK 19	DONOSTIARA	ZINEA EUSKARAZ
DBH BIGARREN ZIKLOA			
DBH 1-2-3-4	IRAILAK 14-21	ARTEOINEZ'06	ARTEAZ GOZATZEA
DBH 1-2-3-4	IRAILAK 22	BIZIKLETAZ-OINEZ IBILALDIA	BESTE GARRAIO MOTAK INDARTZEA
DBH1-2-3-4	IRAILAK 29	KMK 06 ZIRKUITOA	IBILBIDEA EZAGUTZEA
DBH 1	URRIAK 31	PLANETARIUM-A	GIZARTE ARLOKO GAIK SAKONTZEA
DBH 2	URRIAK 23	"EN UN LUGAR DE ÁFRICA" FILMA	ETIKAKO ARLOKO GAIK SAKONTZEA
DBH 2	URRIAK 31	MIRANDAOLA- ZERAINA	TEKNOLOGIA ETA GIZARTEKO GAIKIN UZTARTZEA
DBH 3	ABENDUAK 1	MUSIKA KONPOSIZIOA	MUSIKA ORDENAGAILUREN BITARTEZ KONPOSATZEN IKASTEA
DBH 4	URRIAK 11 AZAROAK 24	"CRASH" ETA "CAMPING À LA FÉRME" FILMAK IKUSI	ETIKAKO ARLOAN GAIK SAKONTZEA
DBH 4	URRIAK 26	HERRI KIROL TOPAKETAK	OARSOALDEAKO EKIN HARREMANTZEA
DBH 4	AZAROAK 5	BIGARREN ESKUKO MERKATUA	BERRERABILERAREN FILOSOFIA ZABALTZEA



HAURTZARO IKASTOLAKO MENDI TALDEA 2006 / 07 IRTEERAK



Azaroaren 12an Lapurdiko litorala



Abenduaren 3an Negu Jaia





Urtarrilaren 27an Sky-ikastaroa




Otsailaren 25ean Ataun - Lazkao



Martxoaren 25ean Zumaia - Deba



Maiatzaren 20an Aralar



Ekainaren 10ean Uribarri-Ganboako urtegia




Kontsumoaren etikatik hondakinetaraino!

Haurtzaro Ikastola Eskola Agenda 21 delako programarekin bat eginez sinatutako konpromisoa aurre-eraman ahal izateko, aurten ere, proiektu interesgarri batean murgildu da. Hasiera batean, duela hiru ikasturte "URA: baliabide mugatua" izeneko proiektuarekin abiatu ginen. Iaz, kontsumoaren giza-jarduerak ulertzeko lehen pausuak eman genituen. Jakina, kontsumoaren azterketa ikasturte batean osorik burutzea ezinezkoa denez, aurten ere, kontsumoaren etikaz baino haratago jo eta prozesuaren amaieran pilatzen zaizkigun hondakinetan zentratuko gara.

Irakurle estimatua, zuk zeuk galdera hauetaz zer diozu?

- Hondakin onena, sortzen ez den hori bera da!
- Tippex hondatuz gero, zer egin?
- Etxean lurrera erori eta puskatutako merkuriozko termometroarekin zer egin zenuen?
- 3R ala 6R estrategia bultzatu behar dugu?
- Nork bizi nahi du errauskailuaren ondoan?



Honelako galderak aztertu eta ulertu nahian ikastolako komunitatea osatzen dugun ikasle, irakasle eta gurasoek inplikatzeko asmoz jarduera interesgarriak antolatuko ditugu.

Idazki honekin batera, iaz sortutako ikastolako INGURUMEN BATZORDEA berriro bildu eta aktibatu dugu, zeinetan komunitateko ordezkari guztiak biltzen garen. Batzorde honen helburu nagusitzat guztion inplikazioa, komunikazioa eta partaidetza erraztu eta bideratzea jotzen dugu.

Ikasturte honen amaieran, besteak beste, ikastolako INGURUMEN EKINTZA PLANA diseinatzea helburu nagusitzat hartu dugu.



MUNDU MAILAKO EKIMEN BERRIA

"Guztiontzat mundu hobea eraiki dezagun" ametsa egiten duen kolektibo bati erantzuteko asmotan, ondoko lau desoreka nagusi hauei irtenbideak aurkitu nahian beste ekimen bat indartu da Kanadako erakunde batean.

1. Iparra eta Hegoaren arteko desoreka.
2. Aberatsen eta behartsuen arteko desoreka.
3. Gizon eta emakumeen arteko desoreka.
4. Gizakien eta naturaren arteko desoreka.

Zertara jo beharko dugu:

3 R ala 6 R estrategia bultzatu?

3 R


- Produktoak berziklatu
- Ondasunak berrerabili
- Errekurtsoen kontsumoa behitatu
- Errekurtsoak eta aberastasunak berbanatu
- Gure sistema ekonomikoak berregituratu
- Gure balioen sistema berpentsatu

6 R



UDAZKENEKO GIRO EPELA APROBETXATUZ, EZ GENUEN AUKERA GALDU ETA GURUTZE ALDERA ABIATU GINEN, KOXKOTENE BASERRIRA.

BERTAKO IKUILUAN IZAN GINEN BASERRITARRARI LAGUNTZEN: BEHIEI JATEN EMATEN, BEHIAK ZELAIRA BIDALTZEN




ONDOREN BERTAN DAGOEN ERREKA INGURUAN GAZTAINA, MORKOTS, EZKUR, HOSTO, PERRETXXIKOREN BAT BILTZEN ARITU GINEN, ETA SASKIRA BOTA ETA BOTA ARITU GINEN.

GOIZ PASA EDERRA EGIN GENUEN!!

GAZTAINAK JATEAZ GAIN BERTAN BILDUTAKOAREKIN OSO LAN POLITAK EGIN DITUGU.





MAHATZA SAR BITU ETAN ALBU GENUEN
 LA VE / E O SA
 N KH / A B U



INTRAURAK PRESTATZEN ETA TOLKATEAN ARI GUEJ



PERRETIXIKOEN BILA



Kaixo Lagunok:

UDAZKEN HONETAN PERRETIXIKO ASKO BILDU AL DITUZUE?


GU, HH3KOAK ARTIKUTZARA JOAN GINEN ETA NAHIZ ONAK GUTXI AURKITU, PARAJE ZORAGARRI HORRE-TAN OSO ONDO PASA GENUEN.

ARGAZKI HAUETAN IKUS DAITEKE ZEIN GUSTURA IBILI GINEN ETA ONDOREN GELAN PERRETIXIKOEKIN EGIN-DAKO LANAK.

ZERBAIT GEHIAGO IKASTEN DUGUNEAN KONTATUKO DIZUEGU.

AGUR ETA LASTER ARTE

HH 3



ERDI AROAN

- ❖ Ez zegoen eskolarik; eliz gizonak bakarrik zekiten idazten eta irakurtzen.
- ❖ 4-5 urterekin lanean hasten ziren eta 14 urterekin ezkontzen ziren. Ume asko izaten zituzten eta 40 urterekin hiltzen ziren.
- ❖ Mota askotako gazteluak zeuden eta erregeak bakarrik agintzen zuen.
- ❖ Zaldunak eta jopuak zeuden.
- ❖ Ez zegoen komunik.
- ❖ Ez zegoen kulerorik, ez eta kantzontzilorik ere.

LH 2. MAILA






DINOSAUROEN GAIAREKIN LOTUTA, EGITAEKO
SUMENDIEN BAT EMATEN ZUEN MAKETA
EGIN GENUEN. GAINERA, 5 URTEKOEI


2. MAILAKOEI ETA GURASOEI ERAKUTSI
GENIEN. AZ KENEAN, METEORITO BAT ERORI
ZEN MAKETARA, ETA DINOSAUROAK
DESAGERTU ZIREN.



AZAROAK 21EAN SARA ETA
ZUGARRAMURDIKO KOBATULOAK
IKUSTERA JOAN GINEN
ASKO IKASI GENUEN:

- LEHEN GIZAKIAK NOLA BIZI ZIREN.
- J.M. BARAN DIARAN ZEN ZEN.
- SAGUZARRAK NOLAKOAK DIREN.
- AKELARREA ZER ZEN.
- OSO ONDO PASA GENUEN!!





OLATZ PAMIZAKO IRAKASLE BIURRI

OLATZ
PAMIZAKO
IRAKASLE



BEIN BATEAN BAZEN IRAKASLE BIURRI
BAT ETA BERE IKASLEI BIURRIKERIAK
EGITEN ZITUZEN BAINA BEIN BESTE IKASLE
BAT ETORRI ZEN ETA IKASLES ORREK

BIURRIKERI GEIAGO EGITEN

ZITUZEN EGUN BATEAN
BARTIA HANDI BAT
AURRKITU ZUEN

ETA BARTIAK MAGIA EGITEN ZUEN ETA MAGIAK
BOTAZION IRAKAS LEARI ETA
HORRELA ZINTZO A BIURTU ZEN
ETA DENAK POZ-POZIK GERATU
ZIREN DENAK

IPUINA BUKATU ETA KATUKATU



LH 2. MAILA


Gurutzera ibilaldia

Gurutze auzoa erdigunetik urruti samar dago, baina bertara hurbiltzea merezi du. Honela gertatu zaigu guri. Lehendik ere ezagutzen genuen: bertako parkea, frontoia eta inguru hori. Baina aurtan beste zenbait txoko ezagutu ditugu: Txipi berriko erreka, Anderregiko erreka eta bertako pasabideak, Andrearriagako hiliarria, Feloagako gotorlekua (gelditzen dena) eta batez ere Arkaleko harkaitzetako kobazuloak... ilun-ilunak, labirinto modukoak, eskailerak gora eta behera, armiarmez eta sorginez josiak eta batez ere, luze-luzeak.

Bisitatzera ausartzen bazarete matxete bat (inguruko larrak mozteko) eta linterna eramatea ez ahaztu.

Ondo pasa!

LH 3. MAILA





Gure Energia!

Egun gastatzen dugun energia kontsumoaz eta gehien erabiltzen ditugun energia iturriez gure natura hondatzen ari da.

Ohetik jaiki eta argia pizten dugunean, edo irratia entzunez laranja-zukua prestatzen ari garenean, edota dutxa bero ederra hartzen ari garenean... kontsumitzen dugu energia gaur egun.

Energia argiztapenerako, janaria prestatzeko, ura berotzeko, tresna elektrikoek eta berogailuak funtziona dezaten, automobilak funtziona dezaten, ordenagailuarekin jolas egiteko...erabiltzen dugu.

Hiru erregai mota nagusi erabiltzen ditugu: harrikatza, gas naturala eta petrolio. Harrikatza erre elektrikitate lortzen da, gas naturalarekin, ordea, beroa lortzen da eta garraioen %97-ak petrolioaren bidez mugitzen dira, baina petrolio berotzeko ere erabiltzen da.

Erregai hauek erretzean asko kutsatzen da. Kutsadura honen efektuak hauek dira: negutegi-efektua, klima aldaketak, euri azidoa, lehortekak, basamortutzea, uholdeak... Hauek guztiek munduaren bukaera sor dezakete.

Kutsadura hau gutxitzeko nahitaez energia kontsumoa gutxitu egin behar da edo kutsatzen ez duten energia iturriak behar ditugu.

Energia aurrezteko bide garrantzitsu bat energia-kontsumoa gutxitzea da. Izan ere, guk ere badugu energia-kontsumoa txikiagotzen laguntzeko erantzukizuna; argi naturala erabiliz, autoak baztertuz, bizikleta eta bidegorriak bultzatuz, sekadora ez erabiliz, udan erabiltzen den aire girotua eta neguan kalefakzioa kontrolatuz, bizarra kentzeko makina erabili ordez bizar-xafla erabiliz, telebista, ordenadore eta antzeko jolas elektronikoen ordez talde eta kale jolasa sustatuz...


Bazenekien duela gutxira arte neguan kontsumitzen zela elektrizitate gehien, baina orain arazo handiak ditugula udan elektrizitatea ekoizteko? Badakizu zergatik? Bada, bat-batean ezin omen garelako aire giroturik gabe bizil!

Beste aukera kutsatzen ez duten energia-iturriak erabiltzea da; eguzki-plakak, argia eta beroa sortzeko, haize errotak, itsaso eta ibaien uraren bidezko energia sorrerak erabiliz.

Argia, haize eta ura naturaren parte dira eta ez dute kutsadurarik sortzen!





Energia aurreztu!










- 1- Eguzki plakak jarri.
- 2- Haize errota gehiago jarri.
- 3- Garraio publikoak erabiltzea, bizikleta edo oinez.
- 4- Petroleoa, gasolina, gasa etab, gutxiago gastatzea.
- 5- Gehiago birziklatzea.
- 6- Baso gutxiago suntsitzea.
- 7- Ura aurreztu eta araztegi gehiago sortu.
- 8- Berogailua behar denean piztu.
- 9- Behar duguna erosi, bestela ez.
- 10- Argia behar ez dugunean, itzali.

KMK 06



In You!





in Ńeu!



**Mila esker
laguntzaile izan zaituztegun
guztioi.**





Ikasleek literatur lanak sortu dituzte

Oiartzungo XIX. Prosa-Poesia lehiaketa aurreneko hiruhilabete honetan izaten da. Udalak antolatzen duen ekintza hori aprobetxatuz eta idazteko zaletasuna indartzeko helburuz, gure ikastolako haur eta gaztetxoak gogoz saiatu dira euren bizipenak kontatzen eta berriak asmatzen. Eredu txiki bat izan dezazuen, hona hemen 6. mailako poesia bat eta DBH 2. ziklotik aukeratutako narrazio bat eta poesia bat. Gustuko izango dituzuelakoan...

I z a r r a k

Gauaren
ilunean
dir-dir
txikiak.

Argi-
-argi
txiki-
-txikiak,
ilargiaren
ondoan
txuri-
-txuriak.

Gaua
arintzen
dute
mamu
eta
sorginez.

Zerura
begiratu:
hantxe
dituzu
behar
badituzu.

LH 6. mailako Julen Azkue



Oroimen faltan

Nor naiz? Non nago? Galdetzen diot etengabe buruari. Pareta txuriez inguratuta dagoen gelatxo batean nago. Ezkerrera, orriz beteta dagoen mahaia dago. Kaxoi bat irekita dauka eta bertan orriak besterik ez daude. Aurrean apa-lak ditut, baina hauek botikaz josiak daude, kaxa handi eta txikietan banaturik. Eskuinera, erdi zabalik dagoen atea ikusten dut eta bertan ahotsak entzuten dira.

-Bazkaltzen ari ginen eta aulkiarekin jolasean zebilela atzeraka erori da -esan du lehenengo ahotsak. Hau eza-guna egiten zait, baina ez dakit ziur noren ahotsa den. Ondoren, bigarren ahotsa entzun daiteke:

-Sentitzen dut, baina zure semeak kolpe handia jaso du buruan eta amnesia dauka. Ez dakigu noiz itzuliko zaion memoria.

Semea esan du, nire ama ote da? Eta nitaz ari al dira hitz egiten? Egia al da amnesia dudala? Geroz eta galdera gehiago ditut buruan biraka eta oso galduta sentitzen naiz. Ahots ezaguneko emakumea hurbildu zait atzean zuriz jantzita dagoen gizona duelarik. Oso lasai dago, eskuak poltsikotan sartuta, ezer gertatuko ez balitz bezala. Aurpegi oso serioa du eta bere begirada zorrotzak min pittin bat ere ematen du. Zuzenean apaletara hurbildu da eta botika kaxa pare bat hartuz, gelatik irten da emakumea, ni bakarrik utziz.

-Joseba, seme, ez kezkatu. Goazen etxera eta han azalduko dizut dena.


Arrazoi nuen bai, nire ama da, baina etxea aipatu duenean galdera batzuk egiteko gogoarekin geratu naiz. Ze etxe? Non dago gure etxea? Ez naiz gogoratzten eta ama gehiago ez kezkatzeko isildu egin naiz.

Eraikin handi batetik atera gara eta "OSPITALEA" argi eta garbi irakur daiteke.

-Begira, han daukagu aita gure zain -esan dit amak.

Nik auto bat besterik ez dut ikusten. Agian autoaren barrenean dagoen gizon hori izango da nire aita. Zuzenean autora joan gara eta bertan sartu orduko, gizona hitz egiten hasi zait.

-Joseba! Zer moduz? -nik ez diot erantzun, oso arraro sentitzen naiz eta.



Ondean duenak, hau da, nire amak, etxean dena kontatuko diola esan dio tonu baxu batean eta aurpegira begiratu besterik ez zen kezkatuta zegoela antzemateko.

Hogeitabat minutu botako genituen kotxean eta herri batera iritsi garela nabari da.

-Iritsi gara -esan du nire aitak edo delako horrek.

Etxe baten aurrean gaude eta orduan sortu zaizkit kezka gehiago. Etxe hori ezezaguna egiten zait eta gurasoek esan didatenaren arabera, hor bizi gara. Barrutik nolakoa den ere ahaztuta daukat, ez daukat ideiarik ere. Itxuraz handia dela ematen du, baina hori barruan gaudenean frogatuko dut. Sartu gara eta nire amak honako hau esan dit:

-Joseba, joan zaitez ohera, deskantsatzeak on egingo dizu eta.

Ohera joateko? Baina ez dakit non dagoen nire gela. Zer egingo dut orain? Zer esango diot? Bada-ki, zorabiatzen ari naizela esango dut eta gelaraino lagunduko didate. Hala gertatu da eta biak etorri dira laguntzera.

-Zerbait behar al duzu? -galdetu dit amak kezkatu samar dagoela.

-Ez, eskerrik asko.



Biak joan dira eta nire gela miatzen hasi naiz. Gela nahiko handia da eta pareta urdinak posterrez estalita daude. Ez dago gogora etortzen laguntzen didan ezer eta oso kezkatuta nago. Ohean etzan naiz eta soinurik atera gabe gurasoen elkarriketa entzuten saiatu naiz. Ama negarrez ari dela iruditu zait eta orain kezkatuago geratu naiz. Nigatik ari da negarrez, gaixoa, eta hau dena aulki malapartatu horregatik gainera. Orain damutu egiten naiz, ez nuen jolasean ibili behar. Pausoak entzuten dira, norbait dator nire gelara.

-Joseba, aspertzen ari bazara telebista ikus deza-kezu -nire ama da eta begiak gorri-gorriak ditu egin duen negarraren ondorioz.

-Ondo da -erantzun diot.

Gelatik irten naiz eta eskerrak nire ama aurretik joan den, bestela ez nuke jakingo non dagoen egongela. Sofan eseri naiz eta telebista piztu dudanean, ama begira geratu zait eta malko bat erortzen hasi zaionean joan egin da. Ni gehiago tristatu naiz, ez zait batere gustatzen nire gurasoak horrela ikustea.

-Bazkaltzeko ordua! -oihukatu du amak.

Sukalderantz abiatu naiz, eta egongelaren ondoan dagoelako aurkitu dut azkar. Aulkian eseri naiz eta gurasoek segunduro begiratzen didate, begirik kendu gabe. Oso deseroso sentitzen naiz, aulkiarekin mugimendu txiki bat egin orduko, biak ditut niri begira.

-Oso goxoa zegoen -zutitu eta nire gelara joan naiz.

Irratia piztu dut eta momentu batez pentsakor geratu naiz. Milaka galdera egin dizkiot neure buruari eta ez dut erantzunik aurkitu. Mesanotxeko kaxoia ireki dut eta bertan dauden argazkiak begiratzen hasi naiz. Pertsona asko ageri dira, baina ez dut inor ezagutzen, nire gurasoak soilik.

Hurrengo eguna iritsi da eta

zerbait gogoratuko dudan itxaropenarekin jaiki naiz. Ez da hala izan. Atzoko bera naiz, ez dut ezer gogoratzen eta ez dut inor ezagutzen. Sukaldera abiatu naiz, gosaltzera, eta gurasoak dagoeneko han ditut niri itxaroten.

-Egun on! -esan diet, eta beraiek "baita zuri ere" batekin erantzun didate.

Gaurkoan, aurpegi alaiagoarekin ikusten ditut biak. Pozik daude eta horrek ni ere poztu nau. Egia esan ez dakit zergatik dauden horrela, baina berdin zait, garrantzitsuena aurpegi alai bat edukitzea da.

-Gosaldu eta gero hitz egin behar dugu -esan du aitak.

Harrituta geratu naiz. Zertaz hitz egin behar ote dugu? Berri txar bat ote da? Ez dut uste, aurpegi horiekin zerbait ona dela esango nuke. Zer izango ote da? Orain jakin minarekin utzi nau, jakin egin nahi dut. Azkar gosaldut eta mahaia jaso ondoren berriro eseri naiz. Aitari begira geratu naiz, noiz hasiko zain.

-Denok dakigu aste hau nahiko gaizki pasa dugula eta gertatutakoaz ahazteko, aste bukaera honetan Frantzia ditugun lagunaren etxera joatea pentsatu dugu zure amak eta biok. Zer iruditzen?

-Bai ondo! Aurreko urtean joan ginela gogoratzen dut eta nik behintzat primeran pasa nuen.

-Zer esan duzu?

DBH 4. mailako Amaia Arriaran





askeen presondegia

Erlojua da,
gure eguzki bakartia,
egun oro gure gainean,
atsekabez betetzen gaituena,
baina...

tik-tak hotsa
bizitzaren bihotza
soinu hotza.

Begietara hitz egin ohi digu
"korri egin!" esanez
batzuetan lotsati
besteetan lagunkoi,
baina...

tik-tak hotsa
bizitzaren bihotza
soinu zorrotza.

Lorea uraren,
ura eguzkiaren,
eguzkia airearen,
airea lorearen
bezain menpe
bizi gara erlojuaren
menpe
eta...



tik-tak hotsa
bizitzaren bihotza
soinu motza.

Esnatu eta erlojua begiratu
behin,
lanera joan eta erlojua begiratu
"berandu nabil!"

bi aldiz,
eguerdian erlojua begiratu
eta "etxera joateko ordua"

hiru aldiz,
gauean erlojua begiratu
eta "afaldu beharra daukat"

lau aldiz,
azkenik erlojua begiratu
eta "lotara joateko ordua"
bosgarren aldiz
begiratu dut erlojua egun batean.
Eta ...

tik-tak hotsa
bizitzaren bihotza
ez da soinu arrotza.

Hauxe zen ohiko eguna
zurrunbiloan bezala
erlojuari biraka.
Zurrunbilo honetatik atera nahirik
eta ezin,
aske izango banintz...

DBH 3. mailako
Jon Irigorri





Eskuttun elkartea Hirugarren urtez lanean ikastolan

Euskaraz bizi proiektuaren barruan, **Eskuttun** euskara elkartea sortu genuen ikastolan bertako ikasleek, orain dela bi urte. DBHko ikasleak gara, eta ikasturtean zehar ekintza mordoa egiten ditugu euskararen erabileraren alde. Aurten hirugarren ikasturtea, beraz, euskararen normalizazioaren aldeko borrokan murgilduta.

Eskuttun elkartea urtero berritzen da, izan ere, 4.mailakoek ikastola utzi ahala, 1.mailakoak sartzen gara lan taldea osatzera. Aurten 23 lagun ari gara proiektu honen garapenean gure ahalegintxoak egiten. Eneko Aizpuru, Eneko Irigorri, Arrate Loiola, Garoa Arbelaitz, Ainhoa Berasarte, Aritz Iparragirre, Olatz Retegi, Iraitz Sánchez, Lierni Tello, Leiden De Las Heras, Izaro Toledo, Jon Irigorri, Garazi Urdanpilleta, Julen Otegi, Dihane Uitzu, Xabier Aduriz, Naroa Fagoaga, Maialen Etxeberría, Edurne Moreno, Garazi Aramendi, Olaia Azpiroz, Aizpea Makuso eta Nerea Vallejo.

Ikasleek soilik osaturiko elkartea da hau eta ikastorduez kanpo egiten dugu lan, gure borondatez eta musutruk, noski. Aurten bereziki indar berritu dugu Eskuttun. Izan ere, lehenengo mailako taldekide berriez gain, 4.mailako hiru lankide berri ere bagaude, Euskararen alde lan egiteko aukera aprobetxatu nahi dugulako, eta bide batez, gainontzeko taldekideekin elkarlanean aritu. Aurten 23 kidek ekin diogun arren, gehiagorentzat ere badago lanerako lekurik. Ongi etorriak izango zarete.



Azken urteetan ikastolan nabaritu omen da euskararen erabileraren murrizketa tiki bat, eta ondorioz, arazo horri aurre egiteko lanean jarraitu behar dugu.

Ikasturte honetako plangintza diseinatua daukagu. Abenduaren 3an, euskararen eguna dela eta, DBHko ikasleen artean, euskararen aldeko ekitaldi bat antolatuko dugu. Iaz martxan jarritako 1.lpuin eta Marrazki lehiaketetako sari banaketak egingo ditugu Santo Tomas eguneko azokan. Honez gain, Haur Hezkuntzako haurrentzat ipuin kontaketak eta antzerki saioak eskainiko ditugu. Ikastola osoan zehar eta Euskara Hobe Hobe izeneko programaren barruan, euskararen erabilera egokiaren lanketa egingo dugu, bide batez, pasilloak apainduz. Hitzun neurketak, euskaraz jolasteko saioak, jolas garaiko lehiaketak, eta beste hainbat ekintza ditugu urteko egitasmoan.

Azken datuen arabera, Diartzuarren euskararen erabilera jaisten ari den garai honetan, herriko ikastolako ikasleak euskaraz bizitzen ahaleginak egin behar ditugu. Ea emaitzak ikusten hasten garen lehenbailehen.

EUSKARA: Sorginen hizkuntza

Argitxo udalekuetan zegoen, asko kostatu zion Zarautzen, udalekuetan, tokitxo aurkitzea, jende askok joan nahi baitzuen udaleku haietara. Bertan, sutondoan zeudela istorio bitxiak kontatzen hasi ziren. Butek besteari galdera bat egin eta honek istorio bat kontatu behar zuen galderari erantzunez.

- Ea ba, Argitxo, orain zu. Nola sortu zen euskara?

- Ba, euskara izan zen sortutako lehengotariko hizkuntza. Aintzinean, sorginak Euskal Herria gobernatzeko zuten garaietan, hau da, denek beldurra ziotenean, hauek bazuten beraien artean komunikatzeko erabiltzen zuten hizkuntza edo se desberdinak. Hasieran, beraiek soilik ulertzen zuten eta beraien kobazuloetatik herrira jaisterakoan erabiltzen zuten herritarrek ez ulertzeko eta honela beraien abereak hil, uztak erre eta familiak gaixotzen zituzten.

Eskuttun ipuin lehiaketa
Irabazlea: Nerea Azurmendi (DBH 3. maila)



Eskuttun marrazki lehiaketa
Irabazlea: Lur Mitxelena (DBH 3. maila)



Gizonezko hezitzaileak txikienekin



betidanik izan ditut gustuko adin txikiko haurrak. Haurrekin lotuta dagoen mundu hori interesgarria, aberasgarria eta erakargarria iruditzen zait. Pentsamendu horri jarraituz, batxilergoa amaitu bezain laster, oso garbi nuen zein bide jarraitu nahi nuen. Magisteritzan Haur Hezkuntzako espezialitatea egin nuen. Bertaratu nintzen lehenengo egunetan, ikusi nuena ikusi ondoren, behin eta berriz galdera bera egiten nion nire buruari: ez ote dago lanbide honetan murgildu nahi duen gizonezkoik?

Hantxe geunden bi gizonezko 60 emakumeren artean!! Behintzat ezin kexatuko gara, oso ondo tratatzen baikituzten.

Karrera amaitu eta berehala hasi nintzen lanean. Egondako eskoletan oso ondo onartua izan nintzen. Haur Hezkuntzako etapan, denak emakumezkoak zirenez, gustu handiz hartu ninduten, gizonezko bakarra bainintzen. Hori esan eta erakutsi zidaten eguneroko martxan. Erabat integratua sentitzen nintzen eta oso tratu ona jaso nuen.

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan ez da gutxiago izan. Hasieratik oso ondo onartua eta integratua sentitu naiz. Iazko ikasturtean eta aurtenera, sehaska taldean nago. Lehenengo aldiz Oiartzun hasi nintzenean, hasiera batean gurasoek erreparoz begiratzen zidaten pentsatuz: "gizonezko honek ondo zaizkio ote du nire haurra?" Hori hasierako beldur bat besterik ez zen izan. Hauetako guraso batek, negarrez ari zen haur bat lasaitzen eta besarkatzen ikusi nindueanean, bere aurreko beldur eta erreparo guztiak bazterturik, bere konfiantza osoa jarri zuen niregan.

Ikasturte honetako gurasoak jakinaren gainean zeuden eta oso harrera ona jaso dut. Esan didate-nez, oso gustura daude gizonezko batekin, nahiz eta hasiera batean arraroa egin beraiei.

Bizitako esperientzian oinarriturik, gizonezkoak animatu nahi zaituztet lanbide honetara!! Haurrek ematen dizutena berezia baita eta emakumeen maila emateko gai garela ikus dezaten.

Aitor Iraola

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko irakaslea




Zer egin zorriekin



Zorria intsektu bizkarroia da, eta ugaztunen odola xurgatuz bizi dira. Gehienetan buruan kokatzen dira, ile artean, eta bertan jartzen dituzte arrautzak.

Pertsona batetik bestera kontaktu bidez kutsatzen dira, eta gehien bat haurrek izaten dituzte.



- Prebentzio gisa, ilea garbitu eta ondo orraztu.
- Astean behin buruko azala eta ilea aztertu, batez ere belarri atze aldea eta lepo aldea.
- Etxeko kide batek izanez gero beste kideak ere kontrolatu behar dira.

Gogoratu:

- Tratamendua egin arren, astero begiratu behar direla buruak.
- EZ DA TRATAMENDU BAKAR BATEKIN GARBITZEN.
- Zorriak hil arren, partzak gelditu daitezke, beraz ondorengo egunetan etengabe begiratu behar da.
- Tratamendua FAMILIA GUZTIAK EGIN BEHAR DU; oso garrantzitsua da.
- **GURASOEN ARDURA DA haurrak zorriak dituen ala ez kontrolatzea.**

LURDES BEREZIARTUA eta BELEN PETRINA
OIARTZUNGO OSASUN ETXEKO ERIZAINAK



Swiss culture

First of all I would like to say the reasons why I chose Switzerland. I chose this culture because I stayed in Switzerland on holiday and I liked the country a lot. One of the reason is that it is beautiful, the culture is very interesting and the people are very kind. Not only that, the environment is wonderful because there are very high mountains and lakes, and the cities, are very clean. Because of all this I fell in love with Switzerland. First I would explain the similarities and the differences of these two countries and then I give my opinion and conclusion.

The Basque country is located in the south east of Europe and at the same time, Switzerland is located in the centre of Europe.

Both Switzerland and the Basque country, have minority languages at risk. While Basque is at risk because of the strength of the official languages French and Spanish. Swiss is in danger because of this official languages, French, German, Italian and English.

Another similarity are the free time activities. Near the Basque country are the Pyrenees so the activities that we do, are relationed to mountains the same as in Switzerland. And in winter, we practice winter sports such as skiing or snowboarding. Also in Switzerland, is near the alps so they have the same hobby as the Basque people.

The Basque country and Switzerland are different as for the home habits. In our culture, for instance, same lucky people have a person in the house to do the house work. Whereas in Switzerland it is a luxury of very wealthy people to have a person at

home. This is due to the fact that they spend their money on other things. One of the example of Switzerland wealth is that you can see Porches, Ferraris, jaguars... every where.

Switzerland and the Basque country, are different regarding living conditions. In the culture of Switzerland, nobody is living in the street without money, work or home. However, in our culture, for instance, there are a lot of poor people living in the street because they don't have anything.

The Basque country and Switzerland are different as far as politic is concerned. Our country is into the European Community. Although Switzerland is more independent. They aren't in the European Community because it is a rich country and they don't need help or money.

When I started this essay, I didn't think that they were so similar. But then as I finished working I thought about it and I can see very clearly that these similarities are logical, because the location is the same, Europe. The religions, home habits, living conditions, the rights that we have, role of men and women are similar because of this reason. To me the most shocking thing are the living conditions of the people. I didn't imagine that two countries so near could be so different regarding the economy. And the thing that impressed me the less are the free time activities. In my opinion they have that hobby because they are both mountainous areas.

DBH-3

Garazi Urdanpileta



Germany

LOCATION AND PHYSICAL FEATURES:

Germany is located in the central Europe, bordering the Baltic sea and the North sea, that is between the Netherlands and Poland wich is found in the south of Denmark.


GENERAL FACTS:

The capital of Germany is Berlin and the area of this country has 356910 square kilometres, is the bigger country comparing with the other countries we see around. In this area there live 82515988 people and the unique language they speak is German. 82515988 people complete the highest number of population in the European Union (E.U.). The currency of this piece of Europe is the Euro (1 Euro (€) = 195583 Deutsche Mark(DM)) like they say or the German people express. The main cities in Germany, apart from Berlin, are Hamburg, Munich, Cologne, Frankfurt, Essen, Dortmund, Stuttgart and Düsseldorf. In Germany there is a constant high unemployment, the number of unemployment is %9,5. This country is one of the world's most highly developed market economies. The official name of Germany is Bundesrepublik Deutschland (Federal Republic of Germany).

CLIMATE:

Germany have a maritime climate caused by westerly winds from the North sea. This climate has a warm summers and mild cloudy winters.

Farther inland the climate is continental, and the temperatures are warmer in summers and colder in winters.



THINGS TO SEE AND DO:

In Germany there are things to see and do:



Like the, Gutenberg museum in Mainz.




The Brandenburg gate in Berlin



And the Hohenzollern castle in Baden - Württemberg.

FAMOUS PEOPLE:


The famous people we can find in Germany are:




Albert Einstein a German scientific (1879-1955)



Claudia Schiffer a German top model (1970-...)




Michael Schumacher a German pilot of Formula 1 (1969-...)



Johann Sebastian Bach, a German musician (1685-1750)



Baltikoan barna



Bidaia ahaztezinak izaten direla frogatzen duen adibide garbia da Urruzunokoa. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen duen literatur lehiaketa honek, Euskal Herriko hogeitazazko gazteri Europar barna hamar egunetako bidaia egiteko aukera ematen die.

Aurtengoan, Haurtzaro Ikastolako hiru ikasle ohik esperientzia honetan parte hartzeko aukera eduki dugu. Herrialde Baltikoetan izan gara, Letonia, Lituania eta Estonian hain zuzen ere eta ez dugu erraz ahaztuko bizitako esperientzia.

Urruzunok badu gainontzeko literatur lehiaketek ez duten zer edo zer. Xarma berezia du zalantzarik gabe, guztia ez baita sari batera soilik mugatzen. Hamar egunetan zehar, beste herrialde bat ezagutzeko aukera eskaintzen du, beste kultura bat; beste mundu bat. Aurten hizkuntza minorizatuen inguruko azterketa sakona egin dugu, beste herrialdeetako adibideak ezagutuz eta bizituz. Etxetik urrun egon arren, etxean sentitu gara.

Gainera, bidaia kultur eta literatur alorretik haratago ere iristen da. Egitarauaren zatirik nagusia arlo horietara bideratuta badago ere, aisialdirako aukera zabala ere eskaintzen du, hau da, beste hemeretzi gazterekin batera, sariaz gozatzeko aukera ederra.

Honenbestez, literatur sari bat irabazi beharrean, esperientzia ahaztezin eta zirraragarri bat da Urruzuno lehiaketan saritzen dena.

Izan ere, ez dugu erraz ahaztuko Baltiko itsasoko ur gardenaren zentzua, herrien lautasunaren esanahia, herritar xumeen indarra, kale umilen oihartzuna... Ez dugu erraz ahaztuko hainbeste urtez herrialde botereitsu baten menpe egon diren herrien nortasuna: inposaketak inposaketa, direnari tinko eutsi izana. Haien literatur esentzia babesten zuen baso hartako liburuzainaren poesia eta kantuak. Ez dugu ahaztuko bertako ikasleek azaldutako goxotasuna: euren kantu eta dantzak, irribarreak... Ezta Erdi Aroko zantzuak gordetzen dituzten jatetxeak eta kale kantoietako denda xumeen bizinahia ere. Ez dugu erraz ahaztuko, ez horixe.

Bizi egin dugu, amestu, abestu, gozatu -eta gozara-zi-, jolastu... eta idatzi ere egin dugu. Izan ere, idatzi genuelako joan gara eta joan garelako idatzi dugu; baita idazten jarraituko ere!

Izar Azpiroz, Olatz Mitxelena eta Ane Badiola

**URRUZUNO LITERATURA LEHIAKETA
2006ko SARIDUNAK**



AMETS-ATZEMAILA

Materiala:

- Kofetara laten goma
- Sarezko galtzerdiak
- Artilea
- Kola
- Haria eta jostorratza
- Gurazak
- Bolatzak
- Lumak



- ① Moztu zati bat sareko galtzerdiari eta estali goma. Bildu galtzerdi muturrak eta egin korapiloa.
- ② Moztu artilezko 35 cm-ko hiru zati eta zintzilikatu gometik.
- ③ Lotu hazi-mutur bakaitzearn maki adina bolatzak.
- ④ Itxats ezazu bolatzaren barnealdean luma bana kolorekin.
- ⑤ Galtzerditik zintzilik, biribilaren erdian, josi ezazu beste bolatza bat.
- ⑥ Jar ezazu artile zati bat amets-atzemaile zintzilikatzeko gometen gainko partean.

LH 4. maila



NEIL STEPHENS:

TXIRRINDULARI PROFESIONAL OHIA eta IKASTOLAKO GURASOA

Zergatik bidali dituzue sema-alabak ikastolara? ¿Por qué matriculasteis a vuestros hijos-as en la ikastola?

Yo creo que la educación no es sólo una cosa de libros y estudios. En mi opinión, el sentir de formar una parte del pueblo y la aportación de la cultura es tan importante como la educación tradicional.

Zer eskaintzen die ikastolak zuen seme-alabei? ¿Qué aporta la ikastola a vuestros hijos-as?

Además de aportar un buen nivel de educación, la ikastola nos ofrece un ambiente muy familiar. Creo que estar en un ambiente positivo y cómodo es imprescindible en la educación.

Zer iruditzen zaizu eleanitzproiektua? ¿Qué opinas sobre el proyecto de plurilingüismo de las ikastolas?

Nuestra familia es una familia trilingüe de entrada, entonces mis hijos-as tienen cierta ventaja. Lo que sí me parece bien es que desde el principio los niños-as aprendan la importancia de comunicarse en otros idiomas. En lo que es el programa de inglés, me parece un proyecto bien hecho.

Prestatzen al ditu ikastolak ikasleak gaurko gizartearen beharretara? ¿Crees que la ikastola prepara a nuestros hijos-as de cara al futuro?

Con los niños pequeños y con la etapa postescolar muy lejos todavía, no estamos para ver con claridad cómo está la preparación para el futuro.

Con lo visto hasta ahora y con los datos que me han dado, tengo la confianza de que la Ikastola hará todo lo que esté en sus manos para preparar bien el futuro.



EDUARDO CRUZ:

MUSIKARI OHIA ETA IKASTOLAKO GURASOA

Zergatik bidali dituzue sema-alabak ikastolara?

Hezkuntza gazteleraz bakarrik jasotzen zen garaian, euskaraz jasotzeko proiektu bat martxan jarri zen; hau da, Haurtzaro ikastola. Proiektu hori bultzatzeko eta aurrera eramateko, eta proiektu horren sortzaileei egindako lana eskertzeko, gure alabak Haurtzaro ikastolara bidaltzea erabaki genuen.

Zer eskaintzen die ikastolak zuen seme-alabei?

Kalitatezko hezkuntza eskaintzen die; hau da, Ikastolan denetik ikasi, maila altu eta ona izan eta matematika eta horrelako beste zenbait arlo ikasteaz gain, gizartearekiko errespetua izaten jakitea eskaintzen du.

Prestatzen al ditu ikastolak ikasleak gaurko gizartearen beharretara?

Uste dugu baietz. Haurtzaro ikasle ohiek oso maila ona erakutsi dute Haurtzaroko ikasketak bukatu eta beste ikasketak egitera joan direnean, eta baita ere gaurko gizartearen beharretarako.

M^a JOSE EGIABAL:

ANIXETA TABERNAKO SUKALDARIA ETA IKASTOLAKO GURASO OHIA

Zergatik bidali zenituen seme-alabak ikastolara?

Argi txiki bat ikusten gurelako ikastolen proiektuan gure kultura eta hizkuntza aurrera ateratzeko.

Zer sentitzen duzu bilobak ikastolara eramaten dituzunean?

Poza eta gaitetasuna sentitzen dut bilobak ikastolara eramatean eta kezka argi hori pizturik jarraitzeko oraindik KILOMETROAK egin beharra.



EUSEBIO ARBELAITZ:

ZUBEROA JATETXKO MAITREA ETA IKASTOLAKO GURASOA**Zergatik bidali dituzue semeak ikastolara?**

Euskaldunak garenez, gure semeak giro euskaldunean hezitzea nahi dugulako eta bizi garen herrian kokatua dagoelako.

Zer eskaintzen die ikastolak zuen semeei?

Kalitatezko hezkuntza euskaraz, euskal curriculumarekin konprometitua eta baita ere beste kulturetara irekia.

Prestatzen al ditu ikastolak ikasleak gaurko gizartearen beharretara?

Bai.

NEKANE MARTIARENA:
SENDA-BELARRETAN ADITUA,
Oiartzungo HAUR ETA GAZTETXOEN
ASIALDI ANTOLATZAILEA eta
IKASTOLAKO GURASOA

Zergatik bidali dituzue seme-alabak ikastolara?

Egia esan, ez genuen planteatu ez bidaltzea. Ni eta nire bi senideak bertan ikasi dugu. Nire gurasoek, beste oiartzuar asko bezalaxe, lan asko eta esfortzu handi baten ondoren lortu zuten herrian ikastola sortzea. Nire ahizpa, adibidez, ikastolako lehenengo-ko promoziokoa da. Hau da, txikitandik bizitu dut etxean zer suposatu duen ikastola sortzea eta bertako partaide izatea. Honetaz gain, gure alaba jaio zenean nik ikastolan ekintza estraeskolarretan lan egiten nuen eta nahiko barrutik ezagutzen nuen ikastola. Beraz, oso argi genuen non nahi genuen gure seme-alabak hezitzea.

Zer eskaintzen die ikastolak zuen seme-alabei?

0-16 urte arteko heziketa konpleto bat. Konpleto diodanean, laguntza berezia behar dutenentzat aukerak, psikologoa, logopeda, psikomotrizitatea, ... Honetaz gain, hain garrantzitsuak izan daitezkeen eskolaz kanpoko ekintza asko eta asko, ez kirol mailan soilik, kultur arloan baita ere. Ikastetxetik kanpo egiten diren, hau da, herri mailan egiten diren hainbat ekintzatan parte hartzea baita ere.

Zer eskaini dio ikastolak herri honetako irakaskuntzari?

Hainbeste urtean pentsa zenbat haur eta gazte pasa diren bertatik. Batzuk, gainera, oso urrutira iritsi direnak. Akademikoki egia da oso emaitza onak jasotzen direla Oiartzo amaitu eta selektibitatean. Zenbait ikasle ere premioak jaso dituzte, literatura arloan adibidez. Zentzu honetan uste dut harro egon daitekeela ikastola. Honetaz gain nire ustez ikastola herri mailan oso parte hartzailea da, inauteriak, loriartzun, San Juan sua, jaietan haurrentzako puzgarriak, agenda 21, San Nikolas txikia, Olentzero, Santa Ageda... ..

Prestatzen al ditu ikastolak ikasleak gaurko gizartearen beharretara?


Oso galdera konplexoa iruditzen zait, ez ikastolak prestatzen dituen edo ez erantzuteagatik, gizartearen beharretatik baizik. Nire ustez gizartea erabat aldrebestua daukagu edo egiten ari gara eta beharrak diogunak askotan ez dira hain beharrezkoak edo premiazkoak. Baina bueno hau ez da ikastolaren arloa bakarrik, etxetik hasi beharko genuke zenbait gauza aldatzen gizartea zertxobait aldatu nahi badugu.

Zein aukera eskaintzen die ikastolak gurasoei haurren hezkuntzan murgiltzeko?

Nik uste aukera ezberdinak ematen dituela, nahi duen gurasoak heziketa mailan edo eta festa komisioan parte hartzeko aukerak ditu. Ni, adibidez, gure alabaren gelako ordezkaria naiz. Honetaz gain, inauterietan ere gurasoek parte har dezakete txikiak direnean bere haurren gelan edo eta nahi badute guraso taldearekin. Santo Tomas egunean ere gurasoek parte hartzen dugu. Nik uste parte hartu nahi duenak behintzat ateak irekiak dituela. Guraso bezala ere zuzendaritzara edozein ideiarekin joan garenean, beti ondo hartuak izan gara (ikastola muralez margotzea, Santo Tomaseko baserria egitea, KMK D6ko logoa marraztea....)

Harro al zaudete zuen seme-alabak ikastolara doazelako?

Bai, ez dugu inolako dudarik, ez eta damurik ere.





"Oiartzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 - Pol. Lanbarren - 20180 OIARTZUN

☎ 943 49 13 75 • Fax 943 49 34 62



Biok
ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



SEAT Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN
MERKATARITZA ZENTRUA